



ILEROKO ALDIZKARI EDERGARIDUN AITA KAPUTXINOAK ZUZENDUA

:—: || VIII Urtea || 1926'ko Dagoniã || 92 Zenbakia || :—:

Txikago'ko Eukaristi-Batzara



LUNDU guziko kristauen begiak eta gogo-biotzak Ipar-Amerika aldera itzuliak egon dira luzaro, an egiten ziran jai edefak jakin naiez. Inoiz ez bezelako Eukaristi-Batzar eder-eder, ikusgafi bat egin da. Zortzi kardenal, zazpi-reun ta befogei ta amazapi gotzai (obispo) ta miloi ta erdi kristau bildu da Txikago'n, Jesukristo goratzeko ta beronen sinismena aitortzeko.

Bonzano Kardenala Batzaferako Aita Santuaren Ordezkarria New-York'tik Txikago'ra joateko, tren berezi bat jafi zioten guztiz aberaski apaindua ta edertua. Tren osoa margo gofi-gofiz margotua, orga (coche) guzietan Aita Santuaren ikufiña zeramala eta Bonzano Kardenalaren orgak (cocheak) bost gela zituala zein baño zein edef-

agoak.

New-York'tik Txikago'rako bide guzian Katolikoak txaloka asten ziran trenan ikusi bezin laster. Txikago'n Kardenalak, gotzaiak (obispoak) eta miloi bat ta erdi batzarkideak elizan elkarturik meza nagusiari asiera eman zitzaion. Bonzano Kardenala meza-emailea. Irurogei ta bi mila ume meza kantatzen. Ume aien oiu gozo ta biguñak odeiak baño gorago, zeruraño igotzen ziran, zeru-lufeko Efege aundiaren biotza efukiz beteaz eta baita ere meza-entzule guzien biotzak

samur-samurtuaz. Ofela ume aien otoitzak zeruaren ta lufaren artean pakeak egiten zituzten.

Bonzano Kardenalak itz egin zuan eta bere itzaldi edefean Elizaren ta Aita Santuaren izenean dei gozo, maitetsua egin zien Efomatik ufundurik dauden eliza guziei, Efomako Eliza egiazko bakafaren besoetara ta menpera etortzeko. Kardenalaren itzak ondo aditzeko tresna aundi batzuek (resonadores) jafirik zeuden ta oien bidez etzuan iñork itz erdirik ere galdu.

Gero mezan bertan jaunartze eder-eder aundi bat izan zen. Txikago'ko kardenal, Mundelein Jaunak Aita Santuari agindu zion miloi bat ta erdi arimak Jauna artuko zutela bere asmoetan. Eta esan bezela, egin. Egun artan miloi bat ta erdi baño geiago urbildu zan aldare aufera Jauna biotzetan arizera eta maitasunez suturik ta uestez beterik otoitz egin zioten Jaunari Aita Santuaren asmo guzien alde, eskatu zioten eliza guzien batasuna, sinismengabeak sinismenera ekartzeko, pekatariენტzat erukia, efi guzientzat! pakea t. a. Gauza edefagorik ezin! Iñoiz ez bezelakoa Txikago'ko Eukaristi-Batzar edefa!

Batzafak iraun zuen bitartean tren guziak jendez bete-beteak eldu ziran Txikago'ra, artaburuak garauz bete-beteak egoten diranean bezela, geiago ezin artuz. Eta Ipar-Ameriketako lur-agintariak ondo baño obeto agertu ta ibili ziran Elizakin. James I. Davis Jaunak Ipar-Ameriketako gobernuaren izenean ongi etofia egin zienean kardenalari, gotzaiai ta gañerako kristauai, esan zien: «Poz-pozik agurtzen zaituet Ipar-Ameriketako agintari nagusien aginduz eta guziori ongi etofi biotz-biotzekoa ematen dizuet. Miloi bat lagun baño geiago, etxeak ta efiak utzirik, ona etofi diranean, argi ta garbi ikusten da kristau-erlijioa ez dala il, ez, bizi-bizirik dagoela, gizonen biotzak gero ta geiago dijoaztela kristau-erlijioranz.» Ta asko goratzen zuan kristauen erlijioa, on aundi-aundiak egin zitualako Ipar-Ameriketan.

Kristo Txikago'ra sartuko balitz.....

Zenbait urte dirala, William T. Stead idazle ospetsuak liburu bat argitaratu zuan «Kristo Txikago'ra sartuko balitz.....» izenakin. Liburu ofetan erakusten zuan zein gaizki zegoen Txikago uri guzia, lizunkeriaren ta gaiztakeriaren uretan itotzen, eta bukatzen zuan: «Kristo Txikago'ra etofiko balitz, txikagotafak ateak itxiko lizkio teke eta kanpora botako lukete, beren bizimodu txafean jafaitzeko.»

Ustelak atera dira itz oiek zorionez. Txikago guzia zabal-zabalduta, Kristo bafuan artzeko. Aberatsak eta beartsuak, agintariak ta menpekoak, guztiak belaniko jafi dira Jesukristoren afean eta ogi zati barean bafuturik jauretsi (adoratu) dute, ta aitortu beren Jaungoikoá bezela, gauza guzien Efégea ta lrazalea (Egilea) bezela.

Eta Txikago'n gertatu dan auxe bera, beste efi askotan ere gertatzen da. Orain arte sinismenik gabe zeudela, sinismenera datoz egiazko Elizaren besoetara. Pozgafia da, begiak mundu bafena zabalitzea eta Efomako gure Eliz Ama nola dijoan zabalduz ikustea! Ofetarako lan da lan ari dira misiolariak, beren bizitza Jaungoikoari eskeñiz. Ofetarako Eliza, bein ere aspertu gaberik, lanean ari da munduan diranei zeruko bidea erakusteko.

Len-baño-len sartuko al da Kristo efi guztietara, Txikago'ra bezela! Len-baño-len beteko al dira Jesukristoren itz eder aiek: «et fiet unum ovile et unus pastor; eta artalde, bakar bat ta artzai bakar bat egingo da!»

Susmo beltzak

Baño Eliza alde batzuetan lekua irabaziz dijoan bezela, beste batzuetan ez ote dijoa galduz? Efi batzuek, len Elizaren magalean bizi zirenak, ardi galduen antzera ez ote dute iges egin Elizaren babespe gozotik?




Jesukristo etofi-ta, seigafen eunkiraño Ipar-Afrika kristau-efia izan zan,

TXIKAGO'KO EUKARISTI-BATZARE NAGUSIA

Gudari-zelaia: 150.000 laguntzat naikoa

J. Mundelein, Txikago'ko Artzobis-
po jaun guztiz
Agurgarria

Eliz-inguruaren
bide-ertz bat



Elizkizunak egiten diran Eliz-Nagusia

Andik sortu ziran ainbat eta ainbat santu eremuetan bizitza ain latza, ain jainko-zalea, ain garbia egin zutenak eta mende guzietan goratuak izan ta izango diranak. Ofela Antonio, Pablo, Pakomio Santuak eta. Andik atera ziran idazle sutsu, adoretzu ta bikañak, kristau-erlijioa ain ederki aldeztu zutenak. Ofela Tertuliano, Orijenes, Klemente ta batez ere Agustin Santua t. a. Eta gaur...? Gaur zoritxar-zoritxafez Ipar-Afrika kristautasuna oso galdurik dago seigafen eunkia ezkeroz.

Inglatefa katolikotasunaren menpean bizi zan amaseigafen eunkiraño eta gaur dana protestante dala esan leike.

Alemania ere zortzigafen eunkian etofi zan Jaungoikoaren aginduetara, Bonifazio Santuak eta Irlandako lekaideak (monjeak) ekafi-ta. Lutero gaiztoak befiz ufutiratu zuan Eñomako Elizaren altzotik eta gaur gure Elizaren etsairik benetakoena ta bildurgafiena da.

Era berean beste efi askoetaz itz egin ditek: len katolikoak, orain katolikotasuna utzirik, zeruko bidea galdu-ta.

* *

Gure Efi maite au, Euskalefia, gaur kristautasunaren menpean bizi da guzia zorionez. Efi txiki onetatik sortzen dira eunka ta eunka misiolariak, munduko bazter baztefenetara, neke gofien artean sinismena eramaten dutenak. Misio-ari bedeinkatuak!

Gaur ofela da gure Efia. Egunen batez galduko ote sinismena? Ez bedi, ez ofelakorik gertatu! Ez bekio nai Jaunari, ez ofelakorik!

Yuré'tar Julian A. O. M. Cap.



¿NOLETAN...?

¿Noletan pozez nere aufetik
igaro zera,
zuriz jantzita, mendi-usotxo
baten antzera?
¿Nolaz zuk pozez daramakezu,
ene! ziñetan,
zitori-sorta zuri-edefa
zure eskuetan?
Zitori-sorta zure eskuetan..!
Lotsagabea,
nere aufetik, afen, laistefka
pasa zaitea...

Jauregi'tar L.





Apaiz jaunaren gurutzea



GEITABOST *dolar* emango zaizkio, aribitxiz edeftutako zilafezko gurutze bat bilatu eta Andre Mari'ko apaiz-buru M. Doloreaux jaunari itzultzen dionari.»

Iragarki ori ezafi zan Texas aldeko Done Pedro efiko toki agirienetan.

M. Doloreaux pantzetar apaiz zafa zan; efitxo artan urte asko zituena. Balio aundiko gurutzea zeuken; eta batez ere Aita Santuak bedeinkatua eta gurasoak emana zualako, oso maite zuan.

Bein batean il zorian zegoan bati laguntzera deitu zioten; eta berealaxe, Olio Deuna ta bere Gurutzea arturik, bideari eman zitzaion. Apaiz jauna eriarengana eldu baño len ilundu zuan, eta ilunpetan igaro bear izan zuan aren etxe ondoko ibai zearkako zubia. Berekin zituan Olio Deuna ta Gurutzea zubia igaro afean; baño eriarren ondora zanean Gurutzearen bila asi zan eta etzuan arkitu; galdu egin zitzaion. Alegiñak egin zituan bere bila; bañan alpefik.

Padua'ko Antonio Deunari bederatziufen bat egin zion bere eliztar batzuekin batean; lau ilabete geroago ere apaiz jaunaren Gurutzea etzan agiri.

Efi berean bazan amabi urteko neskato bat, Maria Arnold zeritzana. Amarik etzuan eta aitarekin eta anai txiki batekin bizi zan. Eri zegoan; oñaze aundiak izaten zituan eta batere sendabiderik etzeukan; eta bere anaitxoak nork begiraturik etzuala zebilen. Aita bada biziera txafekoa zan eta bere irabazi guziak jan-edanean ondatzen zituan. Alarik ere, Maritxok neke oiek guztiak oso onez eramaten zituan; eta, ezagutzen zuten, auzokoak *santuxoa* deitzen zioten.

Apaiz jaunak, ikusi zuan batean, esan zion:

—Nexka, mesede bat eskatu bear diñat.

—Jauna, zer mesede egin dezakizuket nik?

—Ara, ik badakin, ain maite nuan, zilafezko Gurutzea galdu nuana eta orain arte ezin arkitu izan dedana. Antonio Deunari bederatziufen bat egin bear dion eta azkeneko egunean Jaunartu bear den.

Apaiz jaunaren esanera, neskatoak egin zuan bederatzuifena; eta azkeneko egunean, al zuan erarik onenean, gure Jauna artu zuan; eta ondorean, eskefak egiten ari zalarik, ondoezak emanda bezela, erori egin zan. Elizan zeuden beste batzuek neskatoari laguntzen zioten bitartean, apaiz jauna etxera joan zan eta neskameari gosari ona prestatzeko agindu zion.

Neskatoa ekartzeko asmoan befiz elizara zihoan; eta bidean arkitu zuan, berez zetofela ta eskuetan... zilafezko Gurutzea zuala.

—Jauna, ona emen zure Gurutzea.

—Bañan, neska, nun arkitu den?

—Ez det nik arkitu. Jauna artu ondoan, eskefak egiten ari nintzanean, loak artuta bezela gelditu naiz; eta lorategi eder batean nengoala eta ango ufin gozoak sendatu egin nauela iruditu zait: batere miñik gabe gelditu naiz. Bereala Antonio Deuna agertu zait, aldarean dagoan bezalaxe; baño erabat bustita; eta Gurutzea eman dit, ibaitik atera duala esanaz: gero *Aitaren* egin eta izkutatu egin da. Eta ni Gurutzea eskuetan dedala gelditu naiz.

Geroztik aitag edateari utzi zion eta neskatoa erabat sendaturik gelditu zan.

Otar A. O. M. C.

* * *


Antonio Santuaren bitartez eskariak ta eskefak

Astiz'tik. «Zain zurietako gaitz miñe ta ezertarako ez nintzela iduki niñuna izan nun azkeneko afe izatean eta sendalari ta neronen uestean ere, makufao jafi bear nun oraingoan; da nere bildufekin Antonio Santuari eskefi nizkion bost pezeta beartsuen ogitako, gaitz afenik ez izateagatik; eta berari eskefak eztut deus ere izandu. Pozik jakitea eman nai dut *Zeruko Argian.*» O. K.



Ilabete onen amargañen egunean meza bat emango da «ZERUKO ARGIA'REN» irakurle, zabaltzale ta ongile guztien alde, Antonio Santuaren aldarean.

MALKO GARATZAK



Ixuri nitun malko samiñak
txukatu gabe dauzkat oraindak;
¿nola txukatu baldin ez badit
pozak ofdaindu berotasunik?
¡Ez dakit zenbat, t'ez dakit nondik,
atsekabeak etofi zaizkit!
ta ufundu gabe dabiltz nigandik,
nere burua erotu nairik.

Zaftu baño len, gazte nitzala
jaulki zitzaizkin poz-gai guziak;
gfiñ txafak ere izan banitun
afunt betiko dauzkat utziak;
¿zefgatik bada ufatu naiez
kezka gabeko bafen gafbiak,
bafenen dabil atsekabea
ezafirikan gogo lafiak?.....

Atsegin guzik zapaltzen ditun
itzal iluna nubela jabe,
aufa nitzala—¡jmiñ gafatzena!!—
gelditu nintzan guraso gabe.
Biotzko suak beltz daudelako
bizi samiñ au itzali afte,
etzait iñundik softzen afgirik,
jafgiak beltz ba neretzat daudel!

Umetandikan nere odola
beazun tantoz zegon nastua,
ofen gesal ta malko gafatzez
bat egifia zan nere lxeftua.
Ofdu ezker omentxe nabil
atsekabetan txit zoratua,
ozpiñ ibaian ezin aseaz
nere biotzan daukaten sua.

Ezaguerakin neregandu zan
uda gabeko negu luze bat,
muñetaraño bada nik otza
txikitandikan saftua daukat;

Udabefiko txori txikiñ
txirulirurik ez da neretzat,
poza ta miña, miñ biuftuta,
befdin dirata... neretzat beintzat.

Malkoz aseta, begiak lotan
gofi gofdetzen oi diranean,
lozofoaren itzal beltzenak
galdeztutzen dit—ea zef detan—
Ta ames gozoan itzal beltz ori
poz eman naiez, asten da beftan...
¿nola ofdea liteke asi
poza igari nere malkotan?

Miñez, askotan eskatu diot
obi gañeko afi otzari,
altxa dedila, lazian bakaf bat
eman deyoan nere amari;
au ere baño biuftutzen da
besteen eraz miñ emanlari,
ta ofengatik beti ta beti
malkotan nabil efukigafi.

Gau ilunetan ilafgiaren
izpi gafbiak datozen eran,
miñen eftzetik oroipen batek
bein poz apuf bat bidaldu zidan;
poz piñ arek aitoftzen dizkit
zeru sariak norentzat diran....
¿neretzat bada izango ezdira
emen saririk ez badet izan?

Aldan lenena betoz ba, betoz,
betoz nigana nere azkenak,
kupida gabe ondatu naiez
nabilkiteta miñen almenak.
¡Beto... bai... betoz! bete ditezen
atsekabeen lafi latzenak;
ama gabeko umeen malkoak
egiz dirata ¡miñ gafatzenak! (1)

Emiliano Mujika

(1) Olerki polit samur onek lendabiziko saria irabazi du «Euskeraren Adiskideak» egindako azken sariketaldian. Zorionak olerkariari ta aurrera araitu garaipen berriak irabazten.





NDRE MARIA'RI

Iraizoz'ko P.ren itzak

Lizaña'ko Ilari Ak. egiña

Andante

¡Ze - ru - e - ta - ko e - der - ga

fi - a, oi A - ma mai - te go - zo - a!

mf *f*

Be - ti - be - ti - ko es - keintzen di - zut ne - re bi -

oz - txo ga - xo - a.

rit

pp

rit


Lekaroz 11-7-26

Or zure biotz maitagañan
 Dizekan su bizi ori
 Nerean ere piztu ezazu
 Efe dedin ta kiskali.

—
 Eztezu bertan Ama arkituko
 Birtute-bitxi edefik,

Ez garbitasun-lili garbirik,
 Ez maitetasun-maorik.

—
 Or atzemango dezu bakafik,
 Nere Amatxo gozoa,
 Zureganako zaletasuna,
 Zu maitatzeko gogoa.



5'gn. agindua. Bere burua ez iltzea.



Ru eginkizun berezi aġapatzen ditu boskaġen aginduaġ: 1.^a nork bere buruakikoak, 2.^a lagun urkoaren (projimoaren) gorputzeko biziari dagozkionak; eta 3.^a lagunurkoaren animako biziari dagozkionak.

Gaurkoan, nork bere buruakin zer eginkizun dauzken adiraziko dizut.

Nork bere buruakin dauken lenengo eginkizuna da, ġeren buruak maitatzea.

Kristauak bere burua maitatu bear du, ġure siġismen edo fedeak eskatzen duan eran, au da; gorputza animaren gogorra beartuz eta menderatuz, anima beġiz Jaungoikoaren gogora.

Era ontan, kristauak bere gorputzeko bizitza maitatu bear du, zeruko bizitzaren irabazbide egiten zaiolako. Bizitza ontako eġinbideak, lanak, nekeak, eraman-bear, oġaze ta miġnak, gose ta eġafiak, otz eta beroak, ġau ta eġunak, ġazte ta zartzarokoak, ġuziak bai-dira kristauarentzat biarko eġuneko atseġin-bideak.

Oġenbeste irabaziz betetzen ġaituan Jaungoikoak emandako ġauza dalako ġure bizitza, maite izan bear deġu.

Bizitzako aldia azaroaren itxurakoa dala adiraziz Dabid Iġarle santuak zion: abiaturik, ba-zijoazen negaġez beren azia eragiġnez: etortzean beġiz pozez etoġiko dira, beren armenak besotan dituztela. (Ps. CXXV-6).

Bakoitza zertara beartzen du agindu oneġ?

Agindu oneġ kristau bakoitza, bere biziā zaintzera beartzen du; Ortan sartzen da biziā ġordetzeko bear deġun ġuzia.

Bearturik ġaude, ba, osasunaz beġiratzerā. Ondasun aundia da osasuna ta ġaldu arte zenbat balio duan ezagutzen ez dana. Osasuna izateko eġaz artu dezazkeġun bideak artzera bearturik ġaude. Ez ordea ortarako biderik zalēn eta ġogofenak.

Osasunerako artu bear ditugu eġuneroko ġanari, ġantzi, estalġai, eta sendaġai eġaz-aski izan dezazkeġunak, baġo ez ġaresti eta zalēnetakoak. Berdin-berdin, miġnen bat artzean edo sortzean ġastu aundi ġabe edo lotsa edo oġaze ġogofik ġabe ezin artu ditugun bideak artzera ez ġaude beartuak, aberatsak ba-ġiġa ere.

Argatik *zileġi* da, lotsaġatik sendalariei miġa daukeġun aldea ez ikusten eta ez ebakitzen uztea; baġo baita ere ġakin bear da, ġaitza edo miġa sendalariei erakustea ta bearko dan ebakia eġiteko aien eskuetan ġartzeaz eztela pekaturik eġiten.

Edari ġeieġia, mozkorkeria

Ona osasunaren etsai aundi bat; etsairik iġaragafienetakoa. Edari be-

rogafiak, ardoa, sagardoa, patafa-ta artzea ezta gauza debekatua. Baño oietatik asko artzea, neufi gabe edatea kaltegafi da ta berofengatik debekatua.

Burua edo ezagura galtzeraño edatea pekatua aundia da. Aldian ainbeste ez edan ezkeroz, berez ezta pekatu aundia; baño askotan ta maiz ofela edaten dutenetan geienean pekatu aundia da edo ofelako edanaldiakin etxean jartzen dituzten iskanbilaz, ematen dituzten naigabeaz, ematen duten ikasbide gaiztoz, esaten dituzten lizunkeri edo birauaz (blasfemiaz).

Gogoan iduki gero, mozkortuz geroz esaten diran eta egiten diran gauza gaiztotan pekatu aundia duala ordiak, naiz gauza oiek esatean edo egitean bere buruaren jabe ez izan, edariak artzean zer gertatzen zaion jakin ezkeroz.

Gañera maiz (safitan) edari askotxo edatea kaltegafi da norberarentzat asko aldetara. Edari ofek galtzen du gorputzeko osasuna, galtzen du edo galtzeko afixku aundian jartzen du animakoa; galtzen edo aultzen du burua ta ezagueria.

Gorputzarentzat ain kaltegafi dan gaitz ori, askoz kaltegafiago da animarentzat; gaitz guzien itufi, ta itufi ezin zikiñagoa da animarentzat edari-zalekeria. «Ardoa (*edaria*) gauza loigafia», esan du Jaungoiko berak (Prov. X-1). Oraindik dio Jaungoikoak: «Norentzat zoritxafa? noren aitarentzat zoritxafa? norentzat asafeak? norentzat lezeak? norentzat bidegabeko zauriak? norentzat begiak ateratzea? ez al da ardoan bizi diranentzat eta nondik basoak ustu dabilzanentzat?» (Prov. XXIII-29.)

Nork bere burua iltzea.

Naiz zoritxafekoa izan, ezta ifioiz ere zilegi, nork bere buruari bizia kentzea. Jaungoikoak emana degu bizia, ta ezin diogu Jaunari eskurik artu.

Gaitz, neke ta naigaberik gogofenetan ere Jaungoikoaren laguntza etzai-gu ukatzen; eta gauak eguna ta ekaitzak zeruko argitasuna ondoan izaten dituzten eran, gure eramanbear beltzak ere atzetik egun argiagoak ekafi dezazkigukela eztegu aztu bear. Ta arteko nekeak ez al dira guretzat irabaziak? Etzazula, ba, esan obe dezula il. Zer on zaizun, zure zeruko Aitak daki, zuk ez bezala; itxoin, ba, Aren ontasunari begira.

Gizonak egin dezaken erakeririk aundiena da, bere buruari bizia kentzea emengo neketatik ateratzeko; emengo neke txikietatik atera orduko, betiko neke ikaragafigotara botatzen bai- du bere burua.

Pekatu ta ondamen izugafi ortatik kristauak atzerazteko, Elizak lur santua (kanpo santua) ukatzen dio bere burua iltzen duanari.

Nork bere burua iltzea bezalatsu da, iltzeko afixku aundian jartzea. Bere burua iltzeagatik jartzen ba-da afixku ortan, pekatua egiten du ilko ba-lu bezala.

Baño zenbait aldiz jafi lezake nork bere burua afixku aundi ortan pekatu-rik gabe. Suak artu duan etxean, an efeko lirakenak bizirik ateratzeko, ibai (ubaldera) edo itxasora erori dana ateratzera sartzen balitz, edo sutan dagon etxetik bere burua kalera botako ba-lu bizirik ateratzeko; gefatean loturik daukaten etsai-az beterik dagon etxe-ari edo ontzi-ari zapart egifiaziko ba-lío, gertaera guzi oietan ez luke pekatu-rik.

Iltzeko afixku aundian jartzera bearturik ere arkitu liteke kristaua;

Apaiza ta sendalaria, beren ardurakoak gaitz kutsakor gaiztoak jotzen dituean; soldaduak eta guardiazibilak beren eña ta arduraekoak zaitzeagatik-eta.


Joku ta apostuagatik bere burua iltzeko afisku aundian eta agiri danean jartzea pekatu aundia da, ortara eragitea ere bai.

Il nai izatea.

Il nai izatea pekatu al da? Neke, miñ edo naigabe gaiztoz eta oiek ematen dioten amoruz il nai izatea, bai, pekatu da ta aundia ala ere.

Nork berak ezin zuzendu dezazken bide txafez etxeko gazteak edo etxeko gauzak dijoazela ikusi-ta, iltzea nai izatea pekatu al da? Olakotako iltzeko gogoia ez-ta pekatu, nai Jaunari gogo ori erakutsi, azkenean Jaungoikoak nai duana izan dedila esaten ba-da, edo ala ba-da.

Lufean geran artean izan bearko ditugun etsaien ekiñaldi, zirikaldi, ten-



HAZPARÈN (Lapurdi)


tazioakatik, lagunarte gaiztotan ez arkitzeagatik, geiagoko pekatuak ez egi-teagatik edo betiko zoriona eskuetan ikusteagatik il nai izatea, pekatu al da?

Ez, gauza guzi oiengatik il nai izatea, pekatu ez baño merezimendu izan liteke; baño oiekin datorkigun nekea ez eramateagatik; edo Jaungoikoak bere laguntza naikoa emango ez digun bildufez naiko ba-giñu eriotza, izan liteke pekatu.

Bi itzetan: Jaungoikoak nai arte guk zaitzeko eman zaigun ondasun andia bezala gorde dezagun bizia, begitu dezagun osasunaz egunero eñaz izan dezazkegun bidez; osasuna galdu-aziko liguketen edari geiegietatik, joku ta apustuetatik aldeegin zagun, baño bear denean bizia besteren onez afiskuan jartzeko bildur gabe; ta Jaungoikoak naiko duan arte nekeak eramateko laguntza eskatuz ta emango zaigula etsirik.

Ofela bizitza au zaitzea ta maitatzea, Jaungoiko berak nai duan gauza da.

Intza'r Damaso An.



Ama zertarako?

ERUTIK lufera etofi-ta lotan zeruko aingerutxoa ikusi dezute? Seaxkatxoaren ondoan burua makurturik erdi lotan, luak begiak kixkurtu dizkiolako arkitzen den emakumearen ondora etofi zaitezte.

Maindire txuripean eta oyaletan korapilatua dagon ume txikia ikusi... oña or aingerutxoa: lo goxua baño goxuaguak umetxoaren ametak... ixo...

Gorpuztxoaren dardafekuak esnatzera dijuala diyo... ara... besoak luzatu ditu, arpegia zimurtu eta... negafari eman dio.

Ama ernatu da, burua tente jafita umetxoari begira dago: seaxkari eragiñaz xamuf-xamuf kantan asi da: «Tu kutu... tu kutu... tuku... ta... kutuna... lo nere maite txikia lo.»

Bañan zerutik seaskara eroria dirudien aingerutxoak amaren magala nai du.

«Ixo maitia, diyo amak; atoz, bai, atoz gaixo ori» eta... maindire artetik atera ta amak xamuf bere magalean laztanduaz Jaunak eman dion aingerutxoari bulafa ematen dio.

Umetxoaren ama izaki: egunak eta gauak, osasuna ta bizitza ere umetxoarentzat Jaunak eman dizkiyo: umetxoaren ama izaki: umetxoa zenbat maite dun aditzera emango digunik al da?... ote da?...

Ama zertarako? Bakañik semetxoa maitatzeko? Semea maitatzia, alabatxoa maite izatia aski du amak zorionekua izateko?... aski ote du?...

Ama zertarako? Seme-alabatxoak maite ditulako ongi azitzeko eta seme-alabatxoak ongi azi eta ofela betiko zorionekua izateko. «Gizonaren aziera amaren magalian asitzen dela» ederki esana izan da (Maistre).

Umea ongi ta zuzen aziko bada, iraunkofak diran betiko egiak amak zazpi urtetara etortzerako biyotzian sartu bear dizkio.

«Aziera zuzenaren asiera, Crisostomo Santuak dionez, amaren egin-beafa da: umearen zapuzkeriak amak dakien bezela ixilik eramango ditunik alda ba?... geyen-geyenian etxean egon bear izaten du: ofegatik aitag bañoñ eñaxago ta obeto amak semetxo-alabatxoa azi dezake.»

Ama zertarako? Umeari zertara mundura etofi den erakusteko.

Ama zertarako? Munduaren Egilea nor den eta munduari nola eutsitzen dion semeari erakusteko

Ama zertarako? Gure begiak ikusten eztuten Jaun aundiak zer agintzen digun umeari erakusteko.

Ama zertarako? Onari nola ordainduko dion eta gaiztoa Jaungoikuak nola zigortuko duen umeari erakusteko.

Ama zertarako? Jaungoikuaren ufen aita ta amatxo maite-maitenak izan bear dirala umetxoari erakusteko.

Ama zertarako?... Jaunak eman digun aingerutxoa aingeru Jaunari itzultzeko... seme-alabatxoak ongi ta zuzen aziaz zeru edef-edefa irabazteko.

Ama zertarako? ¿..... ...? Ikasi dezula? Poztutzen naiz: aski da ba.
Oyartzuna O. M. Cap.

« Osasuna »

Apendizitis ori, ¿zer ote da?

Gaitz ofen izena, aditzea bedere, badukezue.

Ez da nolanaiko gaitza, gero: alderdi untan, gaitz ortarik leefa ba omen da.

« *Apendizitis* » ofen iturburua, ertze-mutur batean dago.

Ertze-itsuaren zola aldean; ertze-itsu zefenda mutufean, badugu ertze mutur ñimiño (txikitxo) bat, delako *apendize*, ura da. Zortzi-amar zentimetro luze eta eri-txingila (beatz txikia) bezala lodi, ori da *ertze-maskuloa*; *apendizitis* gaitzaren sortlekua edo iturburua.

Ertze-mutur tipi ofen barne-aldea, alde batetik itsu da, ots, ertze-itsu aldetik safera eta bertzetik itsu.

Orgatik, ertze loditik badaizke eta sar daitezke eritasun zenbeiten kutsuak; alako batzuetan, barne aldean sartu direnak, suartzen (infectar) dute eta orduan pizten da *apendizitis*.

Zuzen-zuzenki, jakintsunek ez dakite zergatik eta zer laguntzaren jabe diteken gure osasunerako, delako *apendize* ori.

Baldin ezpadakigu zertako den on; badakigu gaitz batzuen sorleku dela.

Gaitz unek jotzen duenean; bat-batean du asiera; sabeleko miñez leenik eta ondotik gora-gale eta sukafa. Ezagupide oriekin batio, gaizdunaren itxura txartzen du eta naigabeturik bezala uzten du.

Orduan kontu eta bereala sendakinari ots egin edo deitu.

Geienetan, gaitz unek ematen dituen miñak sabel-zolako eskubiko aldetik dira nabarmenago: alde ortarik, sabel-azala gogortuxea dago eta oso minbera.

Unela, gaitza agertzen denean, leenbaileen sendakina deitu eta argi ikusten badu, *apendizitis* ori duela, oberena da leenengo orduetan ebaki, sabela ideki, *apendize* ekentzeko.

Sendakinaren leenengo ageraldietan, argi ageri ezpada gaitza; geienetan utzi bearko da egin dezan bere bolai-aldia (makufera ematen badu noiz nai dela, ebaki bear) gero gaitza oztu denean, afixko gutiagoeekin ebakidura egiteko.

Sendakinek ardura berexten dute gure baitan, *apendizitis* ori, eta beti, naiz ez iduri, eri-andi da; ezpaidakigu beñere zertaratuko den, orgatik, leen orduetan gaitza bilatzen dugunean, bidezkoena ebakitzea da.

Apendizitis eta unen ondorioak; urdala eta urdail-ondoko zaurien leertzeak

dira, sabel barneko gaitzetan, ardurago (maizago) eriotzera eramaten gaituztenak: ortarako bear dugun bidea leenbaileen artzeko, kontu eta gertu egon.

Askotan egiten dena ez egiteko, begirauzue; makur andia eginen lukete, sendakina deitu beafean, purga bat edo alako zerbeit, gaxo dagonari aharazten baliote.

Ez dakit, argi aski adiarazi ote dautzuedan nik nai nuen ura, *apendizitis* ofen befi zerbeit, zuen osasunerako; Jainkoak ala nai duela.

Lareko.

Su - bazterean

Eztiaren margoa edo kolorea iluntzen danean irakiñazi ta gero ozten utzi zazute. Oztuta, afaultza bertan irabiatu (batitu) ta befiz irakiten jafi, gaiña kendu ezkerro, argi ta gozo geratuko da.

Jateko gogoa ematen duten janariak artu bear dira jaten astean, esate baterako, zitu edo frutak, azeituna edo olio-aranak eta.

Jatekoa urdalean egosten danean, *fekulak* azukre biurtzen dira ta ofetafa oso eroria da gure gorputza. Ofegatik janaldi bakotxean eztira *fekulak* dituzten janarietatik bi plater baño geiago artu bear. Oietakoak dira patatak, babafunak, ilafak eta.

**


Janaldi bakotxean artu zazute aragi-plater on bat, gazta edo afaultzak, baratzekari eze plater bat utzi gabe.

Mai-azken edo postre on bat nai ba'dezute, pastel bat ondo irabiatu (batitu) zazute, mats legortuak (pasak) artu ta iriñez zuritu; gero irabiatu edo batitutako pastelarekin nasi ta guztia egosi. Ola ezta pastela ondoan geldituko eta ezta lodiegi aterako, irtengo.

Lursagar edo patata zuritu ondoan egosiak, eta azala lodi kenduaz zurutako igali edo frutak bere indafik aundiena gabe geratzen dira, au gañeko azal-azpian egoten da-ta.

B. B.





Italia'k Prantzisko Dennari

Joñailaren 24'an, Tossi Kardenal ta Mussolini afean jafi zan Milan'en Itali-a'k Prantzisko Deunari jasoko dion gizairudiaren (estatu) lenengo afia. 2.000 ume bildu ziran ta abestu edo kantatu zuten Prantzisko Deunak eguzkiari, *bere anaiari* egindako abestia. Lombardia'ko alde guzietatik jende asko etofi zan be-re ikufin edo banderakin.

Jerusalen'goak ere bai

Jerusalen gero ta aundiago egiten ari da ta oraingo uri aundien itxura ere ematen sayatzen dira noski bere agintariak. Onela asi dira kale guziaz beren izena ta etxe guziaz beren zenbakia jafitzen. Izen befiak ipintzean, gogoan euki dute agintariak Prantzisko Deunaren izena ta izen au eman diote Prantziskota-fen etxe afean dagoen kaleari.

Ufeko medala ta protestanteak

Utrechi'ko Ikastetxe Nagusi protestanteak batzaldi (concurso) bat egin du ta ufeko medala ematea erabaki du lan onena egiten zuanari Tomas Deunak, ta Calvino protestanteak animen zeruratzeaz diotena agertuaz. Beste guzizen ga-ñean medala irabazi du Friethoff Aitak, Domingo Deunaren seme batek.

Korpus eguna Efoma'n

Orain urte asko egun ortan egiten etzan prozesioa egin da aurtan Efoma'ko kale bafena. Jende askok lagundu dio Jaunari kalez kale ta jendeakin batean joan dira Efoma'ko gobernadorearen ordezkoa, Ikastetxe Nagusiko burua ta beste agintariak. 1870 urtea ezkeror, aurtan joan dira lenengo aldiz Jaunari la-guntzen agintari oyeak.

Ilai lagundu, baño ixilik

Ilai beaf bezela ilobira laguntzen etzaielako ta ofen begirune gutxi gorde-tzen dalako, Dijon urian Elkaftasun bat egin da.

Ara elkaftasun ontan sartu ezkeror, gorde beaf diran gauza batzuek: 1.º Al duten begirune guzia gorde beaf da ilai laguntzean. 2.º Apaizak ilaren etxera eldu orduko, ez dute itzik egingo. 3.º Bidean ez dira berak itz egiten asiko ta besteai asteko biderik ere ez diote emango. 4.º Bidean itz egiten bazaie, eran-tzungo dute, baño alik gutxiena. 5.º Ixilik dijoazen bitartean otoitz egingo dute ilaren alde ta eriotzak erakusten dizkigun gauzak gogora ekafiko dituzte.

Euskaldunak Lourdes'en

Beste urtetan bezela, aurtan ere egin diote euskaldunak beren ikustaldia ainbeste maite duten Lourdes'ko Ama Birjiñari. Mesede asko zor dizkiote eus-kaldunak ta nolabait beren eskef ontasuna erakusi beaf diote. Massabielleko ar-kaitzetik gordeko al ditu euskaldunen arteik iges edo egin nai duten oitura ede-fak! Ez dira alpefikakoak izango noski urtero bost edo sei mila euskaldunek egiten dizkioten otqitzak.